

MUNDU BERRI BATEN SORRERA

Jakintza Ikastolako ikasleek 60ko hamarkadara bidaia egin dute orduko nondik norakoak ezagutzeko. Haien ustez, oso garrantzitsua izan zen ikastolako lehen kideek eduki zuten ausardia, gaur egun ikastola den bezalakoa izatera iristeko. Hori dela eta, lehen kideetako batzuekin harremanetan jarri dira, haien esperientzia sakonetik azaleratu ahal izateko. Garai gogorrak bizi izan zituzten, eta haiei aurre nola egin zieten azaldu dute.

Ikastolen lehen urteak

Espainiako Gerra Zibilaren aurretik, Euskal Herrian euskal eskola autonomoak (ikastolak) martxan egon ziren euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz, baina gerraren ondoren erabat debekatuta geratu ziren Francoren agindupean. Guraso talde batek, ordea, Elbira Zipitria andereñoari ikastola bat irekitzeko eskatu zioten 1944an. Elbira Zipitriak Donostiako Alde Zaharrean zuen etxea; beraz, Urgull mendian ematen zituen eskolak. Horrez gain, garai horretarako oso pedagogia berritzailea eskaintzen zuen eta beste irakasle askoren andereñoa ere izan zen. Apurka-apurka beste andereño batzuk Euskal Herri osoan ikastolak irekitzen hasi ziren. Huraxe izan zen ikastolen mugimenduaren hasiera.



Jakintza Ikastolaren lehen urteak

Ordizia euskalduntzeko beharra zegoela ikusirik, guraso eta gazte talde bat bilerak egiten hasi ziren Ataunen Setien apaizarekin 1965an. Han hitz egindakoa Ordiziako Guraso Elkarteari azaldu eta laguntza eskatu zioten. Elkartea laguntzeko prest agertu zen.

1968an sortu zen Ordiziako Jakintza Ikastola 50 ikasle ingururekin. Sanperio kaleko Pilotazale elkartearen hasi ziren ematen lehen eskolak bi andereñoen eskutik: Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide. Lau horma, zementuzko lurra, bi arbel eta egurrezko mahai bat besterik ez omen zituzten. Gerora, Fagor kooperatibak butanozko estufa bat ere utzi zien neguari aurre egiteko. Erreportaje honetan elkarriketatua izan denaren, Ana Sarasolaren, ahizpa izan zen lehen ikasle haietako bat, Josune Sarasola, hain zuzen ere. Gerora, Jakintzako irakasle eta gurasoa ere izan da, Ana bezalaxe.

Elkarrizketatuak, Anak, eta ordu hartan ikastolako mugimenduan parte hartu zutenek azaldu dutenez, oso garrantzitsua izan zen guraso haiek egindako lana eta erakutsitako ausardia; izan ere, orduan Ordizian 3 ikastetxe zeuden: eskola nazionala, fraideena eta lekaimeena. Baina denetan gaztelaniaz ematen zituzten eskolak eta, ondorioz, guraso talde batek euskararen aldeko apustua egin zuen, gaztelera nagusi zen herrian.



Bazituen, gainera, beste berritasun batzuk ere: beste eskoletan ez bezala, ikastolan neskak eta mutilak elkarrekin egoten ziren, eta 3 urterekin hasten ziren eskolak jasotzen, izan ere, gainerakoetan lau urterekin edo gehiagorekin hasten ziren. Lehen urte haietan “tranpak” egin behar izan zituzten haurrak eskolaratzeko. Ana Sarasola irakasleak dioenez, haurrak katekesia ematen ari zirela esaten zuten.

Azken batean, guraso haiek lan handia egin behar izan zuten euskara debekatuta zegoen garai haietan. Saioak nahiko ezkutuan egin behar izan arren, orduko une on batzuk ere aipatu nahi izan ditu Anak: ikasturte amaieran egiten zituzten jaialdiak eta bazkariak, adibidez.

“Guraso talde bat elkartu zen
eta bilatu zuten irakasle talde
bat edo pertsona batzuk beren
seme-alabei euskaraz
irakasteko prest egongo
liratekeenak”.

**Ana Sarasola irakaslea, ikaslea eta
gurasoa**

Ikastolaren lana, gainera, ez zen mugatzen haurrak heztera. Izan ere, euskal kulturaren eta euskal izaeraren transmisioan ere ikastolak lan handi egiten zuen. Lehen urte haietako ikasleek gogoan dute oraindik ere ikastolak antolatu ohi zituen udalekuak, antzerki-lanak eta abarrak, horiek guztiek lagundu baitzuten euskal izaera indartzen. Gurasoek, bakoitzak bere gaitasunen arabera, lan handia egin zuten, denerako beharra zegoen eta: arozgintzako lana egiten, tonbolarako txartelak prestatzen, etxez etxe ibiltzen ziren dirua eskatzen eta haurrak ikastolara eramateko konbentzitzen.... Horren guztiaren oinarrian auzolana zegoen.

Eta ezin ahaztu erabilitako metodologia ere. “Euskarazko material gutxi zegoenez, irakasleek sortu eta egokitu behar zituzten eskolak emateko erabiltzen zituzten testuak eta gainerako materialak”, aitortu du Anak. Besteak beste, hiztegia lantzeko aldizkarietako irudiak hartu eta eransten zituzten, sormena ere asko lantzen zuten ipuinak asmatuz... Gainera, irakurtzeko liburu bakarra zuten: Martin Txilibitu. Gainerako guztiak andereñoek sortzen zituzten.



Ikasle haietako batek aitortu duenez, gogoan du ikastolan nola margotzen zuten ikurrina, euskal kultura eta izaera bultzatu nahian. “Ikuskatzailea bisitan zetorrenean, ordea, euskal kutsua izan zezaketen elementu guztiak urduritasun askokin ezkutatzen zituzten irakasleek”, dio ikasle ohiak.

“Gurasoek lan handia egiten zuten dirua biltzeko eta, horretarako, gauza asko antolatzen zituzten. Horietako bat, adibidez, tonbola zen”.

Ikastolaren hasierako ikasle bat

“Ikastolaren lana ez zen soilik euskaraz erakustea. Garrantzi handia ematen zitzaion euskal izaera eta kultura bultzatzeari ere”.

Ikastolako ikasle ohiak

Ikastola handitzen

Ikastolako bazkide eta laguntzaileek Garagartza plazako San Jose ikastetxea erosi zuten eta baimen baldintzatua lortu zuten heziketa jarduerak egiteko. Hau dena 1970ean izan zen. Ordiziako apaiza, Fidel Eizagirre, jarri zen ikastolako titular gisa. Urtebete geroago, Itsasondo, Legorreta, Zaldibia, Ikaztegieta eta Amezketatik ikasleak etortzen hasi ziren Jakintzara, OHOk 3.maila egiteko, gaur egungo LH3ren baliokidea.

90eko hamarkada

Hamarkadaren hasieran, ikastolak Garagartzako lokalak Construcciones Usabiaga enpresari saldu eta batxilergoko eskolak ematen hasi zen, baimenik ez izan arren.

1991n, Jakintza Ikastola, beste 5 ikastolekin batera, Ikastolen Elkarteak bultzatutako Eleaniztasun Proiektua lantzen hasi zen 4 urteko haurrekin.

1993. urtea gorabeheraz betetakoa izan zen. Villa Eugeniako eraikina inauguratu eta bertan kokatu zuten Haur Hezkuntza. Gainera, ikastolak 25. urteurrena ospatu zuen Ordiziako pilotalekuan. 600 lagun baino gehiago bildu



ziren. Baina, urte hartan bertan, Jakintza Ikastolak Euskal Eskola Publikoaren Lege berria zela eta, sare publikoan integratu nahi zuen ala ez erabaki beharra izan zuen. Eztabaida eta bilera ugari egin ostean, Jakintzak ezezko iritzia eman zuen.

Urte berean, urriaren 3an, Kilometroak 93 ospatu zuten herrian. Villa Eugeniako eraikinaren gastuei aurre egiteko dirua biltzea izan zen festaren xedea.



Hamarkadari amaiera emateko, 1999an, Jakintzazu aldizkaria sortu zuten komunitateko partaideen arteko komunikazioa sendotzeko asmoz. Horrez gain, Euskal Kantuen Taldea sortu zuten Juanita Amundarain andereñoaren omenez.

Laburbilduz, ikusi daitekeena da Jakintza urte hauetan zehar asko aldatu dela alderdi guztietan. Ikastolak orain beste erronka batzuei egin behar die aurre, gizartearen asko aldatu baita, baina ahaztu gabe aurrekoek

egindakoa. Anak azaldu duen bezala, guraso talde hari eta beste askori esker izan ez balitz, ikastola ez litzateke izango orain ezagutzen dugun bezalakoa. Bere hitzetan, beharrezkoa



da atzera begiratu eta egindako ahalegina aitortzea, zergatiak aztertzea eta nola egin zuten ikustea. Ikastolak, noski, gorabehera asko jasan beharra izan ditu, baina hauei esker komunitate zoragarri eta handi bat izatera iritsi dira, eta ateak denentzat zabalik ditu, beti ikasle bakoitzaren beharrak kontuan hartu eta metodologia berritzaileen aldeko apustua eginda.

“Jakintza Ikastola denentzako ikasteko toki bat da”.

Ana Sarasola

Etorkizunean aurre egin beharreko erronka asko izango ditu ikastolak. Beraz, auzolanean oinarrituta eta iraganean eta etorkizunean arreta jarrita, Ordiziako Jakintza Ikastolak berritzailea izaten eta denentzat lan egiten jarraituko du. Izandako horrekin harro daude eta komunitatea osatzen jarraitu nahi dute.

Maddi Azurmendi, Laia Zubillaga eta Joane Barandiaran